



## FIFA20 TXAPELKETA

### 1. PARTE-HARTZEARI BURUZ

1.1. Mangamore 2020ko Fifa20 txapelketa **online egingo da oso-osorik.**

1.2. Txapelketak **formatu** hau izango du:

- Finalerako **2 sailkapen** egingo dira, **urriaren 3an eta 4an, 12:00etan**. Sailkapen bakoitzeko irabazleak finalerako plaza bat lortuko du eta sari nagusia irabazteko lehia aritzeko aukera izango du. Lehenengo sailkapenean sailkatuz gero, ezingo da bigarren sailkatzean parte hartu
- **Finala urriaren 11n**, igandean, egingo da, <https://www.twitch.tv/mangamore> webgunean, 15:00etan.
- Parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa da.
- Fifa20 kontu bat eduki behar da.
- Ez da sailkapen-plazen mugarik egingo.

### 2. INSKRIPZIOARI BURUZ

2.1. Izen-ematea online egingo da <https://challonge.com/es/users/mangamore/tournaments> helbidean, oinarri hauek argitaratzen diren unetik torneoaren egunera arte, egun hori barne.

2.2. Izena emateko formularioan datu hauek emango dira:

- Izen-abizenak
- Helbide elektronikoa
- Adina
- Telefonoa (antolakuntza-premiarik izanez gero harremanetan jartzeko)

### 3. TXAPELKETARI BURUZ

- 3.1. Saillkapen bakoitza kanporaketa-formatuko partida bat izango da.
- 3.2. Saillkapen bakoitza hasi baino hamabost minutu lehenago, 11:45ean, challenge-zko check-ina irekiko da eta parte hartzea berretsi beharko da; parte hartu ezean, pertsona txapelketatik kanporatuko da.
- 3.3. Jokalariak Mangamore diskordera (<https://discord.com/invite/6yXfhhbk>) sartu beharko dute zalantzak argitzeko eta partidaren emaitzak iragartzeko. Gainera, kanal hau txanda bakoitzaren hasieraren berri emateko erabiliko da.
- 3.4. Saillkapen bakoitzeko txapeldunek final handian parte hartuko dute urriaren 11n, igandean, 15:00etan, 3 partidako onenari (2 partida irabazten dituen lehen jokalaria izango da irabazlea).

### 4. SARIEI BURUZ

- 4.1. Sari hauek emango dira:

**Txapelduna:** 200€

**Txapeldunordea:** 100€

- 4.2. Txapelketa amaitutakoan, antolatzaileak harremanetan jarriko dira posta elektronikoz, dagozkien sariak jasotzeko.

Inskripzioan emandako datuen benetakotasuna egiaztatzeko, saritutako pertsonari NANaren, txartelaren edo dokumentuaren irudi bat eskatuko zaie (adibidez, familia-liburua), jaiotze-data jasotzen duen legezko balioarekin.

Informazio hori [videojuegos@mangamore.net](mailto:videojuegos@mangamore.net)-i eman beharko zaio.

### 5. ANTOLAMENDUARI BURUZ

- 5.1. Oinarri hauetan araututa egon ez arren, lehiaketaren arrakastarik handiena lortzen laguntzen duen edozein ekimen hartzeko eskubidea izango dute antolakuntzak eta epaimahaiak.
- 5.2. Erakundeak partaidetza-testuinguru errespetuzkoa eta dibertigarria sustatu nahi du, bideojokoekiko grinaz gozatzeko.
- 5.3. Lehiaketan inskripzioa egiteko emandako datu pertsonalak konfidentzialtasunez tratatuko dira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Datuak lehiaketa hau egiteko baino ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarrenei salduko edo lagako.
- 5.4. **Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.**

### HARREMANETARAKO BIDEA:

Zalantzarik izanez gero, mezu elektronikoa bat bidali dezakezu [videojuegos@mangamore.net](mailto:videojuegos@mangamore.net) helbidera.

